


21 / igandea **10:00** San Migel plazan
HERRIKO EMAKUMEEN TOPAKETA:
LOATZORA IGOERA

Irura Moretuz taldeak antolatuta, herriko emakumeentzat topaketa izango da. 10:00etan plazan elkartu eta Loatzo mendira igoera egingo dute elkarrekin. Jaitsi ondoren, elkarrekin topa egingo dute.

- Euskaraz
- Emakume gazte eta helduak

(Irurako Moretuz elkarteak antolatuta)



26 / ostirala **18:00** Herri eskolako aretoan
BARRETERAPIA-TAILERRA HELDUENTZAT

Gure barruko alaitasuna eta samurtasuna aktibatzeneko tailerra. Horretarako, jolasa erdigunean jarri eta barrea umore-tresna gisa erabiliko ditugu.

Tailerra doakoa izango da eta Manex Beristain Agirrek dinamizatuko du. Plaza mugatuak.

Lehentasuna irurarrek izango dute.

- Euskaraz
- + 16 urte
- Izen ematea www.irura.eus-en gonbidapena eskatuz, kultura@irura.eus helbidera idatziaz, edo kultura bulegora deituz (943692674)

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)

28 / igandea **10:00** San Migel Plazan
X. ARTISAUTZA ETA JANARI AZOKA

Baserriko eta kaleko material, teknika eta produktutu desberdinen azoka: gazta, eztiak, kontserbak, bitxiak, larruzko eta arizko jantziak eta osagarriak. Herriko, bailarako zein Euskal Herriko artisauak eta elikagai ekoizleak.

- Publiko guztia


MUS TXAPELKETA IREKIA

Maiatzean zehar herriko tabernetan



IRURAKO AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK 2023
Proposamenen bozketak

Maiatzaren 8tik 11ra Udaletxeko harrera bulegoan, kulturuneko postontzian, www.irura.eus web gunean edo APPko parte hartzea atalean.



IRURAKO HAURESKOLA

DOAKOIA DATORREN IKASTURTETIK AURRERA!!!

IGRATUITO A PARTIR DEL PRÓXIMO CURSO!

IRAILEKO IZEN EMATEA:

APRIRILAK 24tik MAIATZAK 16ra
(del 24 de ABRIL al 16 de MAYO)

MAIATZAK 17, LGTBIQ + FOBIAREN AURKAKO EGUNA



IRURAN LGTBIQ + FOBIARIK EZ!!



MAIATZAK 17-19
“KULTUR ANIZTASUNAREN MUNDU EGUNA”



MAIATZAK 28
“X. ARTISAUTZA ETA JANARI AZOKA”



NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la oficina de cultura



euskara



castellano

03 / asteazkena **11:00**
San Migel plazatik
abiatura

**IRURAKO ADINEKOAK
SASOIKO EGOTEKO
EGITASMOA**

65 urtetik gorako pertsonen ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Bi modutara har daiteke parte, erabiltzaile bezala edo mugikortasun arazoak dituztenei laguntzeko boluntario aurkeztuz.

Parte hartzeko: **943 691 333** zenbakira deitu edo **gizarte@irura.eus** helbidera idatzi.
· +65 urte

Oharra: laguntzaileak gazteagoak ere izan daitezke.



06 / larunbata **14:30** San Migel plazan
KANTU BAZKARIA

Urtero bezala kantu bazkaria izango da, herriko plaza musikaz alaitzeko. Aurten denentzat paella egongo da gazte asanbladako kideek prestatuta. Bazkal ondoren, Joxe Mendizabalek alaituko du giroa. Tiketak salgai Xare kafetegian eta trinketeian. Erosteke epea maiatzak 2.

Oharra: eguraldi txarra eginez gero, frontoian izango da.
· Euskaraz
· Publiko guztia

(Irurako gazte asanbladak antolatuta)



11 / osteguna **18:30**
Herri eskolako aretoan

**ENARAK PROIEKTUA
IRURAN**

Irurako Udalak Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, Enarak proiektua abian jarri du, hiriko hegazti intsektujaleei buruzko herritar-zientzia eta ingurumen-hezkuntzako ekimen berritzailea. Enarak proiektuaren helburua, herritarrak trebatu eta lan egitea da, udalerriko enara arrunta, enara azpizuria eta sorbeltz arrunta ezagutzeko. Udalerriko hegazti-faunarekin konprometitutako eta sentsibilizatutako herritar talde bat osatuz, protokolo bat egingo da Iruran hiru espezie horien habia guztiak aurkitzeko eta denboran zehar jarraitzeko. Honela, 2023. urtetik aurrera, enara eta sorbeltzen bilakaera hori www.aranzadi-enarak.eus webgunearen bidez ikusi ahal izango da. Aranzadiko Ornitologia saileko teknikarien azalpenak jaso ostean, espezie intsektujale hauek ikusteko herrian zehar bisita gidatua egingo da.

Proiektuaren inguruko zalantzak argitzeko kontaktua:
ingurumena@irura.eus / 943 691 333

- Euskaraz eta gaztelaniaz
- Publiko guztia

(Irurako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak antolatuta)

13 / larunbata
Ikastolan

IKASTOLAREN EGUNA

Ikastolaren eguna ospatuko da. Egun guztiko ekintzen egitaraua osatu eta jakinaraziko da laister. Komunitatearekin elkarlanean eta jai giroan ospatu nahi da Ikastolaren egun handi hau. Herritar oro gonbidatuta dago antolatzen diren ekintzetara.

- Euskaraz
- Irurako Ikastolako komunitatea eta herritarrak

(Irurako Ikastolak antolatuta)



16 / asteartea **11:00** Udaletxean
EA2030 UDAL FOROA

Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak Irurako ingurumen teknikari, Tolosaldeko arduradun eta alkatearekin Udala Foroa izango dute. Bertan ikasturte honetan landutako gaia aurkeztuko da eta hartutako konpromezuek gain, udalari hobetzeko proposamenak luzatuko zaizkio.

- Euskaraz
- Ikasleak eta Udala

(Irurako Ikastolak eta Udalak antolatuta)



17 / asteazkena **17:30** Liburutegian
IPUIN KONTAKETA + TAILERRA

Kontzientziazteko ipuinak AMSGILEREkin. Betzaida Urtaza Elizburuk Euskal Herrian sortutako ipuin ederrak kontatuko ditu. Naturaren zainketa, maitasuna, emozioak, berdintasuna... lantzen dituztenak. Etorri eta gozatu!

- Euskaraz
- Publiko guztia



“KULTUR ANIZTASUNAREN MUNDU EGUNA”

17 / asteazkena **19:00** Herri eskolako aretoan
“SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO: KRISI HUMANITARIOARI ERANTZUNEZ” HITZALDIA

2015etik aurrera, Mediterraneoan bizi den krisi humanitarioari erantzuna ematen eta giza eskubideen alde borrokan ari da Salvamento Maritimo Humanitario erakundea.

Migrazioaren arrazoiak eta euren proiektuen (“Archivald Dickson “Kioseko osasun-proiektua eta Maydayterraneo proiektua “Aita Mari erreskate-ontzia”) berri emango digute, besteak beste.

- Euskaraz eta gaztelaniaz
- Gazte eta helduak

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



19 / ostirala **17:00** Herriko plaza batean
KLARIONA TAILERRA

Kla eta Riona, bi artista ibiltari, haien lagunak diren Larrosa, Laranja eta Berdea-rekin iritsiko dira, eta munduko horma-irudirik handiena margotu nahiko dute Iruran, herritarrekin batera eskuak zikinduz.

Ikuskizun parte-hartzailea den antzerkia eta esku-hartzeko plastikoaren bidez, txiki zein nagusiek parte hartzeko aukera izango dute.

- Euskaraz
- Publiko guztia

